

# BERANGO

## gaur

URRIA 2018 - 70 ZK.

BERANGO GAUR HILABETEKARIA  
BERANGO GAUR MENSUAL

www.berango.net



**Berango**  
Guztien konpromisoa  
Un compromiso común  
21

berangokoudala@berango.org



## AURREKONTU PARTE-HARTZAILEEN PROZESUA "BIDEA EGITEN" LELOAREKIN HASTEN DA BERANGON

HERRIAN ERROLDATUTAKO 16 URTE BAINO GEHIAGO DUTEN PERTSONEK PARTE HARDEZAKETE AZAROAREN 11RA ARTE

**2**019ko Aurrekontu Parte-hartzaileen prozesua martxan jarri da Berangon. "Bidea egiten" leloarekin auzokoei deialdia egiten zaie beraien proposamenak aurkeztuz modu aktiboan parte hartzeko. Proposamen hauek onura orokorrera bideratuta joan behar izango dute. Udalak bideragarriak direnak aztertuko ditu, helburua "herritarren beharrak eta lehentasunak ezagutzea kontuak egitean kontutan hartu ahal izateko" baita, Herritarren Partehartzearen zinegotzi arduraduna den Juan Carlos Colladok azaltzen duen bezala.

Gobernu Taldeak ekimen hau bultzatu du ondoz ondoko hirugarren urtean, herrian erroldatutako 16 urtetik gorako edozein pertsonak parte hartu ahal izango duelarik. Gobernu taldearentzat "garrantzitsua da parte hartu duten herritarren iritzia, Aurrekontuak prestatzerakoan erabilgarria izango delako". Parte-hartzea zabaltzeko ekintza batzuk "photocall" eta informazio karpenei kokapena izan dira, azaroaren 7an Nagusien Etxean 19:00etan jarriko dena bezala.

Proposamenak azaroaren 11ra arte aurkez daitezke. Udal-eskuduntzakoak izan behar dira, ondoko gaiekin erlazionatuta: Hirigintza, Lanak eta Zerbitzuak, Berdintasuna, Kultura, Hezkuntza, Euskara, Gazteria, Droga-mendekotasuna, Ingurumena, Osasuna, Herritarren Segurtasuna, Herri-babesa eta Gizarte Ekintza.

Proposamen guztiak bideragarriak izan behar dira teknikoki eta ekonomikoki bere jasangarritasun ekonomikoa eta finantzarioa justifikatuz; onura orokorrari eta herritar guztien onurari lehentasuna emango zaie norberaren interesen gainetik eta herriaren lurralde oreka bermatuko da. Ez dute inola ere sartu behar legez kanpoko eduki difamatzailea edo diskriminatzailea.

**NOLA PARTE HARTU** Parte hartu ahal izateko herri osoko postontzietan zabalduko den formularioa bete eta aurkeztu behar da. Inprimaki hau auzokoen esku egingo da Berangoko Udaleko zuzeneko arreta bulegoetan ere. Era berean, euskarri digitalean ere aurkez daitezke: USB memorian, SD txartelan, CDn, DVDn eta halakoak aipatutako

bulegoetan. partaidetza@berango.org posta elektronikoko helbidera zuzen daitezke eta Udaleko webgunean dagoen formulario digitala ere bete daitezke. Inprimakiak bete ondoren herriko leku desberdinetan jarriko diren postontzietan aurkez daitezke.

**2018 URTEA** 2018ko Aurrekontuak osatzeko aurrera eraman zen aurreko prozesu parte-hartzailean 277 iradokizun aurkeztu ziren: hauetako 174 Hirigintza, Ingurumen eta Lanak eta Zerbitzuak arloekin erlazionatuta; 72 Euskararekin eta Hezkuntzarekin loturik; 23 Kultura, Kirola eta Berdintasunari buruz; 4 Gizarte Ekintzakoak eta beste batzuk Gazteria, Ekonomia-Sustapena eta Enpleguaren inguruan.

Hirigintza Sailarekin erlazionatutako proposamen gehienek argiztapen, asfaltatze, garbiketaren hobekuntza, Berangoko zonale desberdinen egokitzeta eta higikortasun txikiko pertsonentzako edo haurtxo-gurditxoentzako herriaren irisgarritasuna hobetzea eskatzen zuten. Prozesuan parte aktiboa hartu zuten hiru pertsonen artean, bi emakumeak izan ziren.

## BERANGOKO IRISGARRITASUNA HOBETZEN DUTE INTXAURRAGAREN ETA SABINO ARANAREN ARTEAN

"Behin-behineko irtenbidea izango da zonalderako behin betiko proiektua burutu arte", azaltzen du alkatea.

Berangoko Udalak Irisgarritasunaren Legea beteko duen malda bat jarriko du Metro geltokiaren sarreratik hurbil kokatutako igogailuaren ondoan. "Azken hilabeteetan igogailuan matxura bat egon da eta mantenuaren arduraduna den enpresak bost egun behar izan ditu konpontzeko. Onartezina da hainbeste

denboratan gelditzea", adierazi zuen Berangoko alkatea den Anabel Landak. Azpiegitura honek Sabino Arana kaleko beheko parte eta Intxaurreaga auzoko goikaldea lotzen ditu.

Igogailuaren arazo horiek, Gobernu Taldea horrelako egoerak errepika ez daitezkeen irtenbideak bilatzera bultzatu dute. "Teknikariei irisgarritasuna betetzen duen malda bat arin jartzeko aukera aztertzea eskatu zitzaie, zonaldeari behin

betiko irtenbidea ematen zaion bitartean". Landak esan zuen arabera, pasadan irailaren 20an Berangoko Udaleko Hirigintza eta Ingurugiro Informazio batzordeko zinegotzietan hiru guztia buruzko informazioa luzatu zitzaie. "Zer gertatzen da igogailuarekin? galdera egin zuen zinegotzi baten interpelazioa argitzeko izan zen".

Gaur egun malda birplanteatuta dago eta "aurrekontua eta ezaugarriak ezagutu ostean

berehala jarriko da. Zonalderako behin betiko proiektua egin arte ordeko konponbidea izango dela nabarmendu nahi dut", eragin zuen alkatea.

Elementu honen kokapena Sabino Arana kaleko bigarren fasearen berrikuntzaren proiektuan islatuta agertzen zen jada eta lanak laster hasiko dira, duela gutxi esleitu baitira. Pasadan urriaren 2tik maldaren planoak argitaratuta agertzen dira udaleko web orrialdean.

# BERANGON 70 URTERA JEITSI DUTE ETXEBIZITZEN SUTEAK EKIDITZEKO ADINA

KE-DETEKTAGAILUAK JARRI DITUZTE 131 ETXEBIZITZETAN AURTEN SEGURTASUNA BERMATZEKO

**B**erangoko Udalak 70 urtera jeitsi du 2018an etxebizitzetan suteen kontrako alarmak jartzeko adina. Giza-Zerbitzuen arduraduna den Nerea Jimenezek azaltzen duen arabera, erabakia prebentzioagatik hartu da "pertsonak osasun edo mugikortasun arazoak izatekotan arrisku taldea delako". Aurten ke-detekttagailuak jarri dira 131 etxeetan, aurreko urteetan baino askoz gehiago, orain arte prebentzio sistema hau kokatzeko gutxieneko adina 80 urtekoa baitzen. Esate baterako, 2016an 54 etxeetan eta 2017an 24 etxeetan jarri egin ziren.

"Gure onuradunen aldetik beste herrialdeen batz besteko onarpenaren gainetik gaude", azpimarratzen du Jimenezek eta bere esanetan 70 urtera jeistearen neurria "arriskuak murrizteko hartu zen eta oso harrera ona izan du".

Borondatezko zerbitzu honen handitzearen abantaila bat gizarte langileei gizatalde gazteagoarekin harremana izatea errazten zaiela da. Beraien bizitza egoera ezagutzeaz gain, beraien bilakaera denboran zehar eta, Gizarte Zerbitzuen babesa behar izatekotan edo etorkizunean behar izatekotan, dauden prestazioak eta laguntzak ezagutzen dituzte. "Era honetan Gizarte

Zerbitzuekin harremana izatea normalizatzen da, noizbait hauen beharra izan ahal duen populazioaren artean", nabarmentzen du Nerea Jimenezek.

Suteen kontrako alarma hauek urtero berrikusten dira egoera onean daudela egiaztatzeke eta aldatu egiten dira berriztu behar izatekotan. Horrela egin da 72 etxebizitzetan aurten. Gogoratu beharra dago pertsona nagusiek jasan dako istripu hilgarri gehienak beraien etxebizitzetan sortutako suteen ondorioz gertatzen direla.

Ke-detekttagailuen kokapenak etxebizitzaren azterketa osoa suposatzen du. Instalazio elektrikoa, ke-erazgailua edo gas tresnak bezalako elementuak gainbegiratzen dira, besteak beste. Eta arriskuak murrizten dituen protokoloa martxan jartzen da. Horrela, kasu guztietan etxebizitzaren krokis bat egin zen larrialdiko ebakuazio posible bati aurre egin ahal izateko.

Onuradunei oinarritzko argibide batzuk eta autobabeserako gidaliburu bat ematen dizkiete, etxean suteraren bat egotekotan zelaz jokatu behar duten jakiteko. Eta gehiago dago. "Segurtasun sinergiak sortzen dira udaltzaingoa-rekin, sute kasuan zeintzuk diren ebakuazio puntuak ezagutzeko". Jimenezek azpimarratzen duenez, "premiazko beharra dagoenean Suhiltzaleei ematen zaizkien datuak dira, jokaera eraginkorragoa errazteko. Eta 131 eraikinen planoaz zehar, antzeko antolamendua duten etxeetan bizi diren pertsonen segurtasuna ere hobetu egiten da, urbanizazioen kasuan askotan gertatzen dena", amaitzen du.



## ZER DA EUSKARALDIA?

Euskaraldia Euskal Herri osoan gure egunerokotasunean euskara gehiago erabiltzeko egingo den ariketa kolektiboa da. Parte hartzaileek hamaika egunetan zehar (azaroaren 23tik abenduaren 3ra arte) hartuko duten rola aukeratu dute: AHOBIZI edo BELARRIPREST izan ahal dute. Rolaren berri emateko parte-hartzaileek txapa bat izango dute.

## ZER DA AHOBIZI IZATEA?

Euskaraz hitz egingo diet ulertzen duten guztiel. Ezezagunel lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diet.

## ZER DA BELARRIPREST IZATEA?

Egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut.

## ZER LORTU NAHI DUGU?

-Euskararen erabilera areagotzea eta hizkuntza ohituretan eragitea.

## NORK HAR DEZAKE PARTE?

16 urtetik gorakoek eman dezakegu izena. -Ahobizi izateko, euskaraz hitz egiten jakin behar da. -Belarriprest izateko euskara ulertu behar da.

## NON EGINGO DUGU?

Bakoitzak bere inguruan: familian, lagunartean, lanean, eskolan, dendetan... Izena Euskaraldiaren webgunean bertan edo Berangon eman dezakezu. Izena eman dezakezu Berangoeta Kultur Etxean, Udaletxean, Berangoko Eroskin, Frontoi tabernan eta Berango Merana eskolan. Bete atzealdeko formularioa eta eman izena. Informazio gehiago: euskaraldiaberango@gmail.com facebook.com/euskaraldia.berango

## ¿QUÉ ES EUSKARALDIA?

Euskaraldia es un ejercicio colectivo que se va a llevar a cabo en toda Euskal Herria para utilizar más el euskera en nuestro día a día. Quienes participen, elegirán el rol que van a tomar durante once días (del 23 de noviembre al 3 de diciembre): podrán ser AHOBIZI o BELARRIPREST. Para dar a conocer qué rol han elegido llevarán una chapa.

## ¿QUÉ ES SER AHOBIZI?

Hablaré euskera con todas las personas que lo entiendan. Al dirigirme a quienes no conozco, al menos mi primera palabra, será en euskera.

## ¿QUÉ ES SER BELARRIPREST?

Háblame en euskera, que te entiendo. Igual te respondo en castellano, pero quiero que me hables en euskera.

## ¿QUÉ QUEREMOS CONSEGUIR?

-Fomentar el uso del euskera e influir en las costumbres lingüísticas.

## ¿QUIÉN PUEDE PARTICIPAR?

Podemos apuntarnos los mayores de 16 años. -Para ser ahobizi hay que saber hablar en euskera. -Para ser belarriprest hay que entender euskera.

## ¿DÓNDE LO VAMOS A HACER?

Cada cual en su entorno: familia, amigos, trabajo, colegio, tiendas... Puedes inscribirte directamente en la web de Euskaraldia o en Berango. Puedes apuntarte en la Kultur Etxea de Berangoeta, en el Ayuntamiento, en Eroski de Berango, en el bar del Frontón y en el colegio Berango Merana. Rellena el formulario del reverso y apúntate. Más información: euskaraldiaberango@gmail.com facebook.com/euskaraldia.berango

## Agenda Berango Antzokia

Noviembre 2018ko Azaroa

• Azaroak 3 // 19.00h  
"MARIE CURIE"  
Zinea 7 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Doan. Marie Curiek Fisika eta Kimikako Nobel Saria irabazi zuen.

• Azaroak 4 // 18.00h  
"TADEO JONES 2"  
Animazio Zinea umeentzat. Gaztelaniaz. Doan. Tadeo Jones Las Vegasera joango da Sara Lavroff arkeologoarekin.

• Azaroak 10 // 19.00h  
"ÁREA DE SERVICIO"  
ANTZERKI emanaldia helduentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 1€. Muskizeko "Juego de Damas" Antzerki Taldearen emanaldia.

• Azaroak 11 // 18.00h  
"TOR MAGOA"  
Magia ikuskizuna. Euskaraz. Doan. Tor Magoaren magia emanaldia, familia osoarentzat.

• Azaroak 17 // 19.00h  
"BILBOTARRAK"  
Abesbatza emanaldia adin guztientzat. Sarrera: 1€. "Bilbotarrak" taldearen bilbainadak eta abesti ezagunak.

• Azaroak 18 // 18.00h  
"IGEL ENERRESUMA"  
Animazio zinea umeentzat. Euskaraz. Doan. Igel enerearen alabak Joko Olimpikoak irabazi nahi ditu.

• Azaroak 24 // 20.00h  
"SI LAS MUJERES MANDASEN"  
Antzerki-formako zarzuela. Gaztelaniaz. Sarrera: 11€. Zarzuelaren antologia, "Masa Coral del Ensanche" taldearekin.

• Azaroak 25 // 18.00h  
"DENAK GARA EZBERDINAK"  
Lur Korta ipuin kontalaria umeentzat. Euskaraz. Doan. Neskak eta mutilak berdinak gara, haurrak eta helduak ere, ezta?



• Azaroak 25: Emakumeenganako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna Lila koloreko puntua duten emanaldiak azaroaren 25a ospatzeko programaren barruan daude.

Sarreraren alde aurretiko salmenta: Kultur Etxean. Gehinez ere 4 sarrera pertsona bakoitzeko Agenda posta elektronikoz jasotzeko: euskara@berango.org



Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



Gehigarri honek  
Bizkaiko Foru  
Aldundiaren  
laguntza jaso du



# HARRERA GEHIAGO URIBE KOSTAKO ETXEGABEENTZAKO PERTSONENTZAT

HITZARMENA 2019KO IRAILAREN 11RA ARTE SINATU EGIN DA. ZERBITZUAREN ZENBATEKOA 396.555 EUROKOA DA

**U**ribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitateak eta Getxoko Udalak SORTARAZI giza garapenerako elkarte klaretarrarekin hitzarmena sinatu dute eskualdeko Etxegabeentzako Eguneko eta Gaueko Harrera Zerbitzuak areagotzeko eta erregulatzeko helburuarekin. Algortako Hijas de la Caridad-Karitate Alaben egoitzatik eskainiko da. Pertsona hauentzako harreraren hobekuntza egunean zehar eskaintako zerbitzuen ordutegiaren luzatzeari esker gertatuko da, hiru orduetatik zortzi orduetako ordutegia izatera pasatuz. 10 pertsonentzako lekua du eta urteko egun guztietan funtzionatuko du, 10:00etatik 18:00etara arte.

Bestalde, Gaueko Harrera zerbitzua gizarte eskusio egoeran daudenentzat, etxegabeentzako edo igarotzen ari direnentzako, zuzenduta dago gaua emateko eta elikatzeko lekua izan dezaten. 18 leku daude, 14 gizonentzako eta 4 emakumeentzako, eta afarietarako eta gosarietarako jantokia du. Karitate Alaben egoitzan lo egin, jan, dutxatu, arropak garbitu etab. egin ahal izango dute. Horrez gain, erabiltzaile hauei Gizarte Zerbitzuetara hurbiltzeko atea zabalduko zaie eta behar dituzten bete-



Anabel Landaz aparte, Getxoko alkatea den Imanol Landa, Sortaraziko koordinatzailea den Itxaso Urcelay eta Algortako Karitate Alaben bi moja.

barrei eta prestakuntzetara eskubidea izateari buruzko informazioa ere eskainiko zaie.

Hitzarmena 2019ko irailaren 11ra arte sinatu egin da. Zerbitzuen zenbatekoa 396.555 eurokoa da eta haueetatik 129.237 euro Mankomunitateak jarriko ditu: Berango, Sopela, Gorliz, Urduliz, Plentzia,

Barrika eta Lemoiz udalerriek osatutakoa. Mankomunitatearen presidentea eta Berangoko alkatea den Anabel Landak "Gaueko Harrera zerbitzuak Berangon egon den bitartean auzokideen oso harrera ona izan duela" azpimarratu zuen, eta "beti egon dela elkarbizitza ona auzoan" nabar-

mentu zuen. Urte honetan, uztaiera arte, 66 gaueko harrerako zerbitzu eskaini dira Berangon, 58 gizoni eta 8 emakumeei. Gehienak -%51- 30 urtetik beherakoak ziren. Asistentzia honetako helburua eskusio egoeran dauden pertsonak hauek gizartearen berriz integratzea da.

Anabel Landaz aparte, Getxoko alkatea den Imanol Landa, Sortaraziko koordinatzailea den Itxaso Urcelay eta Algortako Karitate Alaben bi moja - María Pilar Redún eta María José Eizagirre-Getxon komunikabideei egindako zerbitzuen aurkezpenaren egon ziren.

## SABINO ARANA KALEKO LANEK OINEZKOENTZAKO GUNEAK AREAGOTZEN DITUZTE

HIRIGUNEAREN ITXURA HOBETU DA OINEZKOENTZAKO ESPARRU HANDIEKIN ETA ZONALDE BERDE TXIKIEKIN

Sabino Arana kaleko trafikoa moteltzeko eta oinezkoentzako esparruak handitzeko lanen lehenengo fasea amaitu egin da. Berangoko kale nagusia Getxotik hurbilago dagoen lehen parte horretan trafikora zabaldu da jada. Egindako lanak zailenak izan dira populazio gehiago duen segmentuan burutu direlako, etxebizitza gehiago duen partean.

Lan hauek 1,4 milioi baino apur bat gehiagoko aurrekontua izan dute eta bederatzi hilabete iraun dute. Orain bigarren faseari hasiera eman nahi diote ahalik eta lasterren. Fase honek Simon de Otxan-

dategi kaletik, Metro geltokiarren aurrean, Eroski hipermerkatuaren biribilerraino hartuko du. Proiektua 827.981 eurotan lehiaketara atera da eta laster esleituko da.

Sabino Aranaren birmoldaketaren helburua trafikoa moteltzea eta oinezkoen guneen lehentasuna ematea da, kale atsegina sortzeko asmoarekin, atsedenerako esparruak eta zonalde berde txikiak kokatu direlarik. Honekin batera, aparkalekuak berrantolatu dira eta estalperik gabeko aparkaleku berriak sortu dira. Hauek kalearen sarreran eta irteeran kokatuta egongo dira.



Sabino Arana kaleko lanek oinezkoentzako guneak areagotzen dituzte.



## 'GYMKHANA' BURDIN HESIAN

Umeek Burdin Hesiaren garrantzia modu erakarriarri eta dibertigarrian ezagutzeko. Hau izan zen Berangoko Burdin Hesiaren Oroimenezko Museoaren seigarren urteurrena ospatzeko antolatutako familiarrentzako gymkanak lortutako helburua. "Areneren eta Beran-

goren defentsan izugarri lagundu diguzue", eskertu zien kapitainak metrailadore-habiaren ondoan kokatutako helmugara heltzean. Museoaren zuzendaria den Aitor Miñambres izan zen kapitaina. Ibilbidea Museoan bertan hasi zen. Aktoreen konplizitatearekin, umeek erreportaia bat idatzi

behar zuen kazetari bat lagundu zuten hurbil kokatutako informazio puntu batera bere gurasoekin. Han zifratutako mezu bat topatu zuten, eta tresna berezi bati esker mezu argitu ahal izan zuten. Ondoren, Moreagako baserri batean, asto batzuek garraiatutako janaria salbatu zuten erroma-

tar balantzan pisatzeko eta metrailadore-habira eramateko. Han errazionamendu-liburuxkarekin gudarien ohiko arrantxa eman zieten amaitzeko. Parte-hartzaileei trebetasun frogak izan zituen ibilbidea asko gustatu zitzaizkien eta "gymkhanan" modu aktiboan hartu zuten parte momentu guztietan. Bitxikeria, pasadizo eta antzeztutako kontaketen artean, talde handia Berangoko Historian Gerra Zibilean sartu zen.

## 'GYMKHANA' EN EL CINTURÓN DE HIERRO

Conocer la importancia del Cinturón de Hierro de una manera atractiva y divertida para niños y niñas. Ese fue el objetivo conseguido por la gymkhana familiar organizada con motivo del sexto aniversario del Museo Memorial del Cinturón de Hierro de Berango. "Nos habéis

ayudado muchísimo en la defensa de Arene y de Berango", les agradeció el capitán al llegar al objetivo cercano al nido de ametralladoras. Aitor Miñambres, director del Museo, encarnó este papel. El recorrido arrancó en el propio museo y, con la complicidad de los actores, niños y niñas acompaña-

ron junto con sus padres y madres hasta un puesto de información próximo a un periodista que tenía que escribir un reportaje. Allí encontraron un mensaje cifrado, que consiguieron descifrar gracias a un aparato especial. Luego en un baserri de Moreaga salvaron la comida que transportaban

unos burros para llevarla hasta el nido de ametralladoras, donde con la cartilla de racionamiento les dieron el rancho típico de los gudarías para concluir. El recorrido con pruebas de habilidad encantó a los participantes, que tomaron parte activa en la "gymkhana" en todo momento. Entre muchas curiosidades, anécdotas y relatos teatralizados, el nutrido grupo se introdujo así en la historia de Berango en la Guerra Civil.

## FAMILIA BATEN ZAIN JARRAITZEN DUTE

Amatza Auzoa, 5 lurreta 48215 (Goiuriko bidea). Bizkaia.  
Zentroko ordutegia: astelehenetik-ostiralera: 10:00-14:00; 16:00-19:00;  
Zapatuak: 10:00-14:00

Ba al dakizu, gaur egun, Berangoko herrian bertan batu diren 5 txakur daudela txakurtegian, adopzioaren zain? Interesaturik egonez gero, ikustera joan zaitezke, **ZAUNK**-era



Izena: **Saiko**  
Arraza: **Setter**  
Sexua: **Arra**  
Adina: **2 urte**  
Ezaugarriak: **Lagunkoia eta aktiboa**



Izena: **Lolo**  
Arraza: **Mestizo**  
Sexua: **Arra, zikiratua**  
Adina: **2 urte**  
Tamaño: **Txikia**  
Ezaugarriak: **Lagunkoia**



Izena: **Ron**  
Arraza: **Mestizo**  
Sexua: **Arra**  
Adina: **2,5 urte**  
Ezaugarriak: **Lagunkoia eta maitekorra**



Izena: **Tak**  
Arraza: **Setter**  
Sexua: **Arra**  
Adina: **3 urte**  
Ezaugarriak: **Lagunkoia, baina aktibitatea behar du**



Izena: **Spike**  
Arraza: **Spaniel Bretón**  
Sexua: **Arra**  
Adina: **3 urte**  
Ezaugarriak: **Lagunkoia, beste txakur eta pertsonekin**



Nombre: **Saiko**  
Raza: **Setter**  
Sexo: **Macho**  
Edad: **2 años**  
Características: **Sociable y activo**



Nombre: **Lolo**  
Raza: **Mestizo**  
Sexo: **Macho, castrado**  
Edad: **2 años**  
Tamaño: **Pequeño**  
Características: **Sociable**



Nombre: **Ron**  
Raza: **Mestizo**  
Sexo: **Macho**  
Edad: **2,5 años**  
Características: **Sociable y cariñoso**



Nombre: **Tak**  
Raza: **Setter**  
Sexo: **Macho**  
Edad: **3 años**  
Características: **Sociable pero necesita actividad**



Nombre: **Spike**  
Raza: **Spaniel Bretón**  
Sexo: **Macho**  
Edad: **3 años**  
Características: **Sociable con perros y personas**

## SIGUEN ESPERANDO UNA FAMILIA

Barrio de Amatza, 5 lurreta (Carretera Goiuria). Bizkaia  
Lunes a viernes: 10.00-14.00 ; 16.00-19.00 Sábados: 10.00-14.00

¿Sabías que existen 5 perros que se han recogido en el municipio de Berango y que hoy en día están en una perrera a la espera de que sean adoptados?

Si estás interesad@ en adoptar alguno de estos perros, puedes realizar una visita y conocerlos en **ZAUNK**